

Beñat Sarasola

◆ IDAZLEA



Euscool manifestua

SOZIOLINGUISTEK, guruek, gure adituek oro, etengabe errepikatzen digutelarik euskarak erreferente kultural potenteak, produktu kultural masiboak dituela premiazko, itsu dira euskara salbatzera datorren mugimendu funtsezkoarekin. Euskal kulturaren *becetxe* betean gaudelarik, ez dugu ikusten euskararen biziraupena bermatuko duen erauntsia. Oinarriparrak eta autozentruak *dokierki* banatzen dizkigute, baina, egiatan, linboan da euskal intelligentsia. Mamu bat baitabil Euskal Herrian. Orain eta hemen, benazko coola, benazko hipsterra izateko bidean ezinbesteko bihurtu baita euskara.

Rockdelux aldizkariak Anari eta Lisabören azkeneko diskoak gurtu zituenetik euskara zentrala bihurtu da ezein gezurmendi indietan. Mursegok euskaraz omentzen du Za! Frantses elebarrak

Experienceekin gozaten ahal dute baina arrotz zaie Willis Drummond. Giorgio Bassmattiren fana izan zaitezke gaztelania elebarra izaki, baina fansa izatera iristeko euskara jakin behar. Horrela ulertuko baituzu bakarrik, esaterako, bere *Kafea eta Galletak* diskoa. Diskoari izena ematen dion Kafea eta Galletak egitasmoan ere euskara entzungo duzu –eta egon badago haren akuiluz euskara ikasten ari denik–. Baina cooltasuna geruza orotan barreiatzen den zerbait da. Jai girorako musikan, adibidez, hor ditugu 3gabe2 eta beren post-berbenak.

Literaturari dagokionez, Harkaitz Canoren nobelak beti urtebeteko atzerapenarekin irakurtzera kondentatua egongo zara ez badakizu euskararik. Behialako argitaletxe independenteek arima saldu dutelarik, euskara hutseko Susa argitaletxea bilakatu da *moloitasun* editorialaren azkeneko gotorleku.

Zineman ere asko galdu dezakezu euskararik jakin ezean. Koldo Almandozen kortoak, Angel Aldarondoren muntaia eta post-muntaiak. Gaztelaniarekin *La pelota vasca* ikus dezake-

zu baina euskararik gabe *Ondarruko vasca* duzu galduko. Baita *Ataun of the Dead* ere.

Prensa idatzian Idurre Eskisabel eta Xabier Gantzarainen eguneroko zutabeak, Zaldieroaren tirak, Xabier Etxaniz Rojoren maratila, Angel Erroren post-zutabeak. Telebistan moloimetroa topera Orain (R.I.P), Beranduegi eta Gorka Bereziartuaren post-txisteeekin. Irratian Hala Bedi eta Ttanttakun Irratia. Twitterren @joxe-ren tweet eta traolak, Trinkotzaindia, @txargain-en retweetak, @luistxo-ren PDFaren kontrako guda.

Politikagintza ere ez dabil aparte. Ezagun da gaztelania batuarekin aski ongi jarraitu ahal izango dituzula ezker abertzalearen manu nagusiak, baina lagun, sortzaile gisa benetan *avant gardean* kokatu nahiko

bazenu euskara beharrezkoa izango zaizu Imanol Galfarsooren liburuak irakurtzeko. Jeltzalea baldin bazara, ordea, gaztelaniarekin lain izango duzu Azkunaren graziei barre egiteko baina, adiskide, ezin izango duzu polimeroei buruzko Josu Jonen doktorego tesia irakurri.

Bada galera gehiagorik: Erramun Gerrikagoitiaren euskara preposizionala, Iruña-Veleia afera, Urtzi Ihtzaren teoria kosmikoak, Xabier Azkargortaren frikari eta afrikariak. Nola izan benetako *modernetia* horiek guztiak galduta? Ezinezkoa da. Ray-ban Wayfarer-ak eraman ditzakezu, The XXen azkeneko singlea Ipodean, koadrodun alkandora, Lomography argazki kamera aldean, baina euskaraz bizi ezean denak alferrik izango zaizkizu cooltasunaren goren mailara iristeko. Orain eta hemen euskara da diferentzia. Laster hasiko dira betetzen euskaltegi zein barnetegiak.

Munduak begiratuko dio miraz, Euskal Herriak esango du ozen: Euscool Herrian euskaraz. ■



Antton Olariaga

